

Irisasi BTT 2026 “Hotzak akabatzen...!” btt bizikleta zeharkaldia

Antolatzailea: Irisasi btt
Babeslea: Usurbilgo Udala.
Bukaera: Frontoian.
Izen ematea: kronoak.com atarian.
Prezioa: 28€ federatuek eta 31€ federatu gabeek
Bi ibilbide: Motza: 23km + 650 m./Luzea: 32km + 950 m.
Mailota opari izena ematen duten lehen 400 partaideentzat.



Kantu-jira kalez kale

Antolatzailea: Usurbilgo Kantu Taldea.

ZATOZTE GUREKIN ABESTERA!!!

Urte berria hastearekin bat, jarduera be-
rriren bat hasteko asmoa berpizten zaigu
maiz askotan. Ba guk, adin guztietarako
eta era atsegin eta errazean egin daite-
keen bat proposatzen dizuegu: ZATOZTE
ABESTERA! Euskal abestien bidez euskal
kultura eta euskara sustatzearekin batera,
ondo pasako duzue talde-giro ederrean.
Atzoko kantak gogoratu, berreskuratu eta
gaurkoak ikasiz tarte ederrak pasako ditu-
zue, ziur!



Astelehenero, arratsaldeko 18:00etan, biltzen gara Agerialdeko ikastetxean. Hurrengo
urtea hamazazpigarrena izango da. Ordubeteko kantu-saioak egiten ditugu, Jaione Esku-
dero gidari dugula. Lehen hitzordua, URTARRILAK 12, arratsaldeko 18:00etan.
Hilero, berriz, kantu-jira egiten dugu. Ekimen honen bidez gure alea ekarri nahi diogu
herri dinamikari. Bide batez, denon altxorra den kantugintza kalez kale hedatzea dugu
helburu. Gure taldekoa izan edo ez, gogoratu kantu-jira herritar orori irekia dela.

GAZTE, HELDU EDO ZAHAR, ANIMATU eta ez ahaztu abesten duen herria ez dela inoiz
hilko!

BISITA GIDATUAK

- **Urtarrilak 24 Museo Irekia eta Salvatore Eliza** bisita gidatua. 11:00, Sutegin
- **Urtarrilak 28 "Zero Zabor"** bisita gidatua. 10:00, Udaletxean.
- **Urtarrilak 30 "Zaintzaren Usurbil"** bisita gidatua. 10:00, Udaletxean.



Sarrerak <https://650usurbilbizi.eus/agenda/>
Telefonoa: 747 485 140
turismoa@650usurbilbizi.eus

ERAKUSKETA

USURBILGO SORTZAILEEN 2025eko UZTA

Noiz: Abenduak 15 - Urtarrilak 7.
Non: Sutegiko erakustaretoan.
Antolatzaileak: Noaua! Kultur elkarte eta Sutegi Udal
Liburutegia.



KZ-GUNEKO IKASTAROAK

IKASTARO ETA MINTEGIAK

AURREZ AURREKOAK

SMARTPHONEAK ETA TABLETAK

- **Zure Android gailua erabiltzen ikasi.** (14 ordu).
Urtarrilak 7-15 18:00 - 20:00

GOOGLE TRANSLATE

- **Testuak eta web orriak itzuli.** (2 ordu).
Urtarrilak 16 18:00 - 20:00

OINARRIZKO INTERNETA

- **Nabigatzen eta posta elektronikoak bidaltzen ikasi.** (20 ordu).
Urtarrilak 19-30 16:00 - 18:00

Honez gain, urruneko ikastaro eta bideokonferentzia eskaintza zabala.

Iraillean Kzgunea: Arratsaldez 16:00-20:00
Kale Nagusia 37. · 20170 Usurbil · Tel.: 943 02 36 84
tutor.usurbil@kzgunea.net · www.kzgunea.eus

UDAL LIBURUTEGIA

Goizez, 10:00-13:00
Astegunetan,
10:00-13:00 eta 16:00-19:30
Itxita
Goizez

●	●	7	8	9	●	●	●
12	13	14	15	16	●	●	●
19	20	21	22	23	●	●	●
26	27	28	29	30	●	●	●

Sutegi Eraikina · Irazu kalea, 14 - 20170 Usurbil
Tel.: 943 360 692 · <http://liburutegiak.blog.euskadi.net/usurbil/>



*Zuen deialdiak zabalteko,
bidali hilaren 15a baino lehen
kultura@usurbil.eus helbidera.*



Usurbilgo Udala
Kultura, Euskara
eta Gazteria Saila
Tel. 943 371 999
kultura@usurbil.eus
www.usurbil.eus



usurbilkultura.eus
Herritarron tresna
Usurbilgo kultura zabalteko

USURBIL KULTURA

2026ko urtarrila

	Osteguna 01:00 Frontoian	URTE ZAHARREKO DJ GAUA: ANDONI DJA	1
	Ostirala, larunbata, igandea 11:00-13:00 eta 16:30-19:30 Oiaro kiroldegian	GABONETAKO HAURREN PARKEA	2-3-4
	Astelehena 11:00 Gutunak 19:30 Kabalkada	ERREGE MAGOEN KABALKADA IBILTARIA	5
	Igandea 17:00 Sutegin	HAURRENTZAKO ZINEA: BARRAKUDAREN ALTXORRA	11
	Astelehena Liburutegian	JOXAN ARTZE GOGOAN	12
	Larunbata 19:00 Emakumeon Etxean	PROMESA BERDINA EGIN DIEGU LAGUN GUZTIEI	17
	Igandea 18:00 Sutegin	TIKTARA MUSIKA TALDEA: UBERA IKUSKIZUNA	18
	Ostirala 17:30 Liburutegian	MANGA TAILERRA	23
	Larunbata 19:00 Sutegin	DEJABU ANTZERKI KONPAINIAREN EMANALDIA	24
	Igandea 09:00 Mikel Laboa Plaza	IRISASI BTT 2026 "HOTZAK AKABATZEN...!" BTT BIZIKLETA ZEHARKALDIA	25
	Igandea 18:00 Sutegin	LURDES IRIONDO: EZ GARA ALFERRIK PASAKO DOKUMENTALA	25
	Ostirala 20:00 Sutegin	IZAKI GARDENAK KONTZERTUA	30
	Larunbata 12:00 Mikel Laboa plazan	KANTU JIRA	31
	Larunbata 19:00 Sutegin	BIHOTZKO FONOTEKA: UGAITZ AGIRREREN IPUIN KONTAKETA MUSIKATUA	31
	Igandea 18:00 Sutegin	FRANKOPOLEON ANTZERKIA	1

ERAKUSKETA

Abenduak 15– Urtarrilak 7
Sutegiko erakustaretoan

USURBILGO SORTZAILEEN 2025EKO UZTA

2026ko URTARRILA

USURBIL Kultura

NOAUA!ren KULTURALDIA



Urtarrilak 30 KONTZERTUA



Urtarrilak 18
TIKTARA
KONTZERTUA

Urte berri on!

EKINTZAK

1

Osteguna

01:00

Frontoian

Urtezahar gaua Andoni Djarekin

Antolatzailea: Usurbilgo Udala.

Sarrera: doan. Gauerditik aurrera Dj gaua izango dugu.

Instagram: @Tintz_dj



2-3-4

11:00-13:00 eta 16:30-19:30

Oiardo Kiroldégian

Gabonetako Haur Parkea

Antolatzailea: Usurbilgo Udala.

Adina: 2-12 urte bitartekoentzat.

Sarrera: Doan.



5

Astelehena

Frontoian eta herrian zehar

Errege magoen kabalkada

Antolatzailea: Ziortza Gazte Elkartea.

11:00 Eskutitz tailerra eta muralaren irekiera.

12:00 Postariaren etorrera eta jolasak postariekin.

12:30 Postariari eskutitzak eman.

17:00 San Estebandik irteera.

19:30 Frontoira iritsi.



11

Igandea

17:00

Sutegiko auditoriumean

Haurrentzako zinea: Barrakudaren altxorra

Antolatzaileak: Usurbilgo Udala eta Ziortza gazte elkarteak.

Sarrerak: 3,30 € usurbilkultura.eus webgunean.

Iraupena: 87 min.



Gurasoak aurkitzen saiatzen den bitartean, Txinpartak Barrakuda kapitainaren itsasontzi piratan amaitzen du istripuz, hortzetaraino armatutako marinel beldurgarriek tripulatuta eta arazo larri batekin: ez dakite irakurtzen. Berak bakarrik lagun diezaieke Phineas Craneren altxorra aurkitzen, Karibeko pirata guztien artean baliotsuena eta gutiziatuena. Horrela hasiko da beren bizitzak betiko aldatuko dituen abentura bat.


12

Astelehena

Liburutegian

Joxan Artze gogoan

Zortzi urte dira Joxan Artze hil zela. Oroimen eta gorazarre mezuak idazteko Erregistro Liburua eskuragarri egongo da Sutegi udal liburutegian, urtarrilaren 9tik 17ra bitartean.



17

Larunbata

19:00

Emakumeon Etxean

Promesa berdina egin diegu lagun guztiei

Sarrerak: doan. usurbilkultura.eus webgunearen bidez.

Infinitudrama konpainiaren eskutik

Poesia, performantzia eta umorea nahasten dituen emanaldi honetan, bi aktorek laguntza sunaren ospakizun kritiko bat sortuko dute, publikoa eskutik hartuta. Euforiaren aparretan agertuko dira adiskidetasun erromantikoa eta taldearen apologia. Zaratak utzitako tartetean berriz kontraesanak, galderak eta galerak. Gonbidatuta zaude.



18

Igandea

18:00

Sutegiko auditoriumean


TikTara musika taldea. Ubera

Antolatzailea: Usurbilgo Udala.

Sarrerak: 6 € usurbilkultura.eus webgunean.

XIX. mendearen bukaera eta XX.aren hasieran, milaka euskaldunek bizi berri baten bila bidaiatu zuten Hego Amerikara. Aro kolonialean berriz, haien bidaia eta bizitza historia eta kondairaren artean galtzen den beste askok Atlantikoa zeharkatu zuten. Azken finean, Kontinente Berriak milaka pertsona erakarri zituen bizimodu berri bati ekiteko, aberasteko edo ametsak betetzeko leku gisa.

TikTara taldeak sustrai latinoko musika sortzen du euskaraz idatzitako hitzekin. "Ubera" proiektuak euskal migratzaileek Ameriketara bizi izan zituzten esperientzietan sakontzen du, migratzaile horiek bertan aurkitutako musikaz lagunduz. Oro har, proiektuak bidaia musikala egiten du, kultura askoren ekarpenarekin Hego Amerikako kultura nola sortu den azaltzeko asmoz, baina, batez ere, euskal kultura hegoamerikar kulturaren ekarpenarekin nola aberastu den ulertzeko.



23

Ostirala

17:30

Sutegi Liburutegian

Manga tailerra II

Sara Basurtoren eskutik, 9 urtetik gorako haur eta gazte-
txoentzat.

Izen ematea: Liburutegian bertan.



NOAUA!ren KULTURALDIA

URTARRILAK 24-OTSAILAK 1

Antolatzailea: Noaua! Kultur Elkartea.

Laguntzailea: Usurbilgo Udala.

Nori zuzendua: gazte eta helduentzat.

Non: Sutegiko auditoriumean.

Sarrerak eta gonbidapenak: usurbilkultura.eus webgunean edo Noaua!ko egoitzan egongo dira eskuragarri.

URTARRILAK 24, LARUNBATA

Dejabu antzerki konpainiaren emanaldia: Itzulera

Ordua: 19:00 **Non:** Sutegiko auditoriumean.

Sarrerak: 10€, usurbilkultura.eus webgunean edo Noaua!n. Bazkideek 8€, Noaua!ko egoitzan.

Arte eszenikoa eta zinematografikoa uztartzen dituen road movie bat da Itzulera, Dejabu konpainiaren azken sorkuntza.

Antzerki konpainia bateko hiru kidek Mexikora eginiko bidaia kontatzen du antzezlanak. Dokumental bat grabatzera joan dira krisi kreatiboan dauden hiru kideak, Etxepare Euskal Institutuak emandako dirulaguntza bati esker. Ezusteko gertakari batek zeharo aldatuko du bidaia nora bidea.



Zuzenean sortutako film baten moduan eszenaratzen da lana. Hiru antzezleek gain, David Aguilar zinegilea dago oholtzan, zuzeneko irudien sorkuntza eta errealizazioan. Komedia existentzial honetan ez dira faltako abentura, paisaia psikodelikoak eta bizia salbatuko dien txakur chihuahua bat.

Esperientzia errepikaezina da emanaldi bakoitza ikusleentzat, abenturaren parte baitira nolabait.



URTARRILAK 25, IGANDEA

"Lurdes Iriondo, ez gara alferrik pasako" Dokumentala

Ordua: 18:00 **Non:** Sutegiko auditoriumean.

Sarrerak: 6€, bazkideek 4€ Noaua!ko egoitzan

Zuzendaria: Inge Mendioroz Ibañez.

Gidoigilea: Idoia Garzes Aldazabal.

Ondoren, Inge Mendioroz Ibañez zuzendariarekin solasaldian aritzeko aukera izango dugu.

Garai bateko zuri-beltzeko argazkietan izotzua gelditu den abeslari gaztea. Kapsulatua. Enkuadre baten barruan harrapatua, haren ahotsa diskoetan bezala. Ahaztuta, nonbait, ikuspuntua hautatu egiten dela. Ahaztuta, abeslaria izateaz gain, euskal kulturaren transmisioan ezinbesteko erreferentia ere badela Lurdes Iriondo. Transmisioarentzat haurrak ezinbesteko zirela uler-tu zuen eta haien izenak idatzi zituen liburua eta antzerkiak.



URTARRILAK 30, OSTIRALA

Izaki Gardenak. Kontzertua

Ordua: 20:00 **Non:** Sutegiko auditoriumean.

Sarrerak: 10€, bazkideek 8€ Noaua!ko egoitzan.

2012an sortu zuen Jon Basaguren-ek Izaki Gardenak. Orduetik lau disko luze eta hainbat single plazaratu dituzte, indie-rocketik, americanatik eta bestelako estiloetatik edanez. Zer esaten den eta nola esaten den bereziki zaintzen dute, ahotsen doinuei, armoniei eta hitzei bereziki erreparatu. Giro sotil eta lasaienetatik energia erauntsietara bidaiatzen iaioak dira, oinarri erritmiko sendo eta gitarra zein teklaturen ekarpen ederrekin.



30 kontzertutik gora eskaini dituzte 2025ean zehar. Gainera, disko berri berezi bat argitaratu dute abenduaren 2an: "Sitsak". Bertan 4 kantu berri eta urteetan zehar diskoetatik kanpo argitaratzen joan diren beste 6 bilduko dituzte.

Zuzeneko partaideak: Jon Basaguren: ahotsa, gitarra/Libe Kortazar: teklatuak, ahotsa/ Joseba Baleztena: gitarra, ahotsa/Aitor Aguirre: baxua, ahotsa/Dani Arrizabalaga: bateria/ Ander Sevilla: soinua/Beniat Gorroño: argiak.

URTARRILAK 31, LARUNBATA

Bihotzeko fonoteka

Ugaitz Agirrerren ipuin kontaketa musikatua

Ordua: 19:00 **Non:** Sutegiko auditoriumean.

Sarrerak: 6€, usurbilkultura.eus webgunean edo Noaua!n. Bazkideek 4€ Noaua!ko egoitzan.

Ugaitz Agirrek aurkeztuko digu bere Bihotzeko fonoteka, ipuin kontaketa musikatua.

Zer da Bihotzeko fonoteka? Hasiera batean, literatura ariketa hutsa. Atzerriko abestien hitzak hartu, eta euskarara ekarri. Abestien kortsean erronka handia, alajaina. Baina ariketa hutsetik emanaldi egin da. Zortzi abesti, bihotzeko abesti, maitasunezko abesti, eta bakoitzak bere ipuintxo. Maitasunaren ertzetan joan-etorrian: musu desiratuak, herdoildutako errutinak, ihes debekatuak, pozoiarekiko obsesioa.



OTSAILAK 1, IGANDEA

Frankopoleon antzerkia

Ordua: 18:00 **Non:** Sutegiko auditoriumean.

Antolatzaileak: Udalbiltza (Geuretik Sortuak), Usurbilgo Udala eta Noaua!

Sarrerak: 3,5 € usurbilkultura.eus webgunean.

2070. urtea. Frankopoleon estatu duala...

Zerk egiten gaitu euskaldun? Noren begiradapetik begiratu, mugatu, mututu, mutilatu edota depilatzen gaituzte? Zenbat hizkuntza hitz egiten ditugu euskaldunok? Zein euskara hitz egiten dugu? Non-dik gatzoz? Nola bukatuko dugu?

KULTURARTECO

Belaunaldi desberdinetako hiru emakume sortzaile gara: Ekhiñe Famoso Intxaurrendieta, Inma Koiote eta Saioa Gomez Tejeria. Udalbiltzak Geuretik Sortuak ekimenari esker elkartu ginen 2024an.

KulturArteCo.-ren helburua gure sormen lanak kulturartekotasunaren begiradatik eratzea da. Euskaraz bizi gara eta euskarek lekua ematen diegu.

